

1903**Euskal-itz jostaldien Batzarrea**

(Euskal-festen XXII garren urtea)

AMA BIRJIÑA GUADALUPEKOARI**Larogei pezetako sari bat eta bitezarra Irun-en irabazitako moldaera**

(Consolatrix affictorum)

Sarritan daukat nere biotza
bete ezin dan naigo batian,
eta naigo au ez betetzera,
orruaz nago antsi tristian,
atsekabea, kupira gabe,
astintzen duen gau illunian,
biotzak negar negar gañean
besterik eztun aldi larrian,
balitz bezela beti samintzen
bizi izateko gauden tokian,
ta ez Jaunarekin pozaren pozaz,
gozatutzeko zeru erdian.

Gizonak dauka icharopena
Donetasun-ko izar argian;
opa du beti, maiz eguzkia
ikusitzea galant goizian,

agurtzen dana gizona gandik
illunabarra datorrenian,
meseede egin ta farrez bezela
sarturik geldit ichas ertzian,
banatzen dala bere ondoren
aize biguna leku guztian,
pakeak duen aize jostallu,
atsegintsoa gure arpegian,
anima zintzo neke diranak
gozatu ditzan lo ederrian.

¡A nork lezaken bizitza igaro
pake dontsuen laztan aldian!
¡Zein legokean pozaz asetzen
atsegintasun bete betian...!
baiñan atsegin irauten duna
berdiña beti biotz gurian,

eztu inölaz ume argalak
izango, naita, emen lurrian,
baizik zeruan... anima ederren,
zerutar diran denen artian.

Goruntz nijoa pozaren billa
zabaldurikan nere eguak;
gorde ditzala gezur diraden
atsegintasun, pozak, munduak;
nai ditut goyen arkitu-beti
egi diranak... ederraguak,
eta biotzai pozkiro eman
bukatzetiran egun gozuak...

Nuan bada ni goruntz-aurrera
eta utzirik samiñ-lekuak,
Guadalupeko Ama Zugana
Zuzentzen ditut nere pausuak.
Izar ederra zaitu zeruak
gogoz autatu, poztu ditezen
larri dabiltzan gizagajuak:
Zu zera poza, zu gure Ama
emandakua Jaun Zerukuak!
izentzen zaitu arrantzaleak,
beti leyal dan gizon zintzuak,
aldi gaiztoak dituenian
Zure oñean dan ichasuak,
ta bera pozik echeratutzen
daki Arnacho Jaizkibel-kuak,
ja balekizke mesede oyen
ordaindun-itzak nere auak!
baiñan biotzak, ao, mingaña
dakarkit, Ama, chit motelduak:
betikan nator... ta ango tokiak
arkitzen dira oso loituak.

Alaz guztiaz, Ama Birjiña,
esan nai ditut pozez kontuak...
baiñan lenengo aldendu itzazu
pilloan dauden nere lanbruak;
osatu itzazu biotz eriak

barrenen dauzkan zauri-zuluak,
bedeinkatuaz penaz ta pozez
sortu ditutan nera itz-neurtuak,
amoriozko esangarritzat
jaso ta dauden euskal-bertsuak.

—

Gizonak beti opa du gozoz,
ardura aundiz, zeru eguna,
betiko pozak biotz zinzuari
ematen dion paketasuna:
orretarako aukeratu du
Jaunak anima bere laguna,
aingeruaren, zerutarraren
edertasuna soiñean duna,
eta nola dan jakiña gure
uskeria ta argaltasuna.
nola semeai ematen dion
amak asnasa ta osasuna...

.....

Zu zera, Ama, zeru-bidean
doai guztien, zu jableduna:
Zure bitartez arkitzen degu
gure animen apaintasuna;
Zu Erregiña, Ama maitea,
Birjiña beti; gure ontasuna;
Izar ederra animarentzat
datorrenean chit gau illuna,
nere bizitza bukatzerako
izan nai detan asnas biguna,
lo ederrian etzin dediyen
neke dagoen biotz aztuna,
beti samintsu negar artian,
bizi dan seme, maite dezuna...
ja! orregatik eskatzen dizut:
itzazu nitzat kupitasuna:
zauden lekutik bialdu zazu
seme diranai laztancho bana;
leundu zazu gure nekea,

mundu onetan daukagun lana,
ta nola zeran doai guztien
emalle ona, Ama laztana,
apaindu zazu zeruko lorez
Zure semeen anima dana;
orla zerura zuzendu dedin
len lurrerako griñakin zana:
egingo dala guk nai bezela
aldi askotan dezu esana
orrela pozez gertu dediyen
Seme maitea Amarengana
kantatutzeroa beti ta beti
mesede aundi gogoz emana.

Iñoiz kaletik kanpora ezta
pozez arkitzen chori chikia;
eztu ez alai kantaz agurtzen
egun-sentiko argi berria,
dabillenean ikusi gabe
bere zelaya, baso, mendia;
antsiaz beti igarotzen du
nagi dijoan egun luzia,
ta illunabarrak eztu beretzat
atsegin gozo, samur, eztia,
illuntze geldia, edertasunez,
apaintasunez oso betia;
baiñan badabil baserrihoan
an ikusiaz bere kabia...
orduan ezta iñoiz asperten
kantatzez mutu zegon choria,
agur egiñaz egun berriai,
alaiturikan egu-erdia
eta astinduez egoarekin
Illunabarko ifar-aizia.

Orren antzera nik ikustian
Elizacho bat eder, zuria,
Jaizkibeleko mendi ederrak
kontuz gorderik daukan tokia;
azpi aldian erri politak
Endaya, Irun, Ondarrabia,
beste aldetik zabalduzen dan
Kantauriako ichaso aundia,
eta Zu berriz poza bialtzen
leku denari Ama Maria...
a! ikustean anima zintzo
diran denaren kabi maitia...
ari nainuke beti goitutzen
Ama Birjiña eder-garbia,
Zeruko doai, bertute denen
oso ugari dan iturria,
Jaunak beretzat egokiena
aukeratu dun urre-echia
eta Zeruan duen baratzen
Ederrena dan sorta-loria;
Goizeko Izarra, mintsuen poza,
pekatarien kai ta estalpia,
Santu guztien Erregiñ ona,
Ama gozua, Zeruko Atia
.
Kantatzen orla naizen bitartez;
bedeinka zazu zure semia,
ta eriotza datorrenean
kezkaz, bildurraz dena jantzia,
nola zeran zu, Kantauriako
ichas aldeko zelataria,
salbatu zazu ur naspilletan
larri dabillen arrantzalia.

RAMÓN INZAGAERAI-KOAK.